



Dantzaren Nazioarteko Egunaren Mezua 2025

Egilea: **Mikhail Baryshnikov**

Askotan esaten da dantzak esan ezina adieraz dezakeela. Poza, atsekabea eta etsipena ikusgarri bihurtzen dira; gure hauskortasun partekatuaren adierazpen gorpuztuak. Horretan, dantzak enpatia piztu dezake, adeitasuna inspiratu, eta kalte egin beharrean sendatzeko gogoia piztu.

Bereziki orain — ehunka mila pertsonak gerraren hondamenak pairatzen dituzten bitartean, krisi politikoak bizi dituzten bitartean edo bidegabekeriaren aurka protesta egiten ari diren bitartean — hausnarketa zintzoa ezinbestekoa da.

Zama izugarria da gorputzarentzat, dantzarentzat, artearentzat. Hala ere, artea da, oraindik ere, esan gabekoei forma emateko modurik onena, eta has gaitezke geure buruari galdezka: Non dago nire egia? Nola zaintzen dut nire burua eta nire gizartea? Noren aurrean erantzungo dut?

Mikhail Baryshnikov

